

URTEAN ZEHARREKO 25. IGANDEA

Caritasen jardunaldia

Sarrerako oharpena

Ongietorri guztiok!

Eukaristia ospatzera bildu gara batzarrean igandero bezala. Bakoitzak, bere pozak eta itxaropenak dakartza aldarera. Gurekin dakartzagu gainera, bizi dugun gizarte eta ingurugiroko ezaugarri eta gorabeherak.

Gaur, hain zuzen Caritasen dei hau egiten digu: “Guztion ongiaren bila urrats sendoz”. Gure otoitza eta diru-bilketa berezia behartsuenei laguntzeko izango dira.

Homiliarako argibideak

Ez gaitu inork lanerako hartu

Bizitzen ari garen pandemia-garai honek, zalantzan jarri ditu gure baldintza eta ziurtasun asko. Mugatuak sentitu izana, gure mugitzeko gaitasuna ere lotua ikusi izana, gure ahultasuna eta zaugarritasuna probatzeko bide gertatu da.

Gure etxeko isilunean, ordea, apaltasunaren beharraz eta arreta gauza garrantzitsuenei eskaini beharraz jabetuko gara. Oinarritzkoa zaindu behar horretan aurkitu dugu honetaz konturatzeko garai egokia zela: elkarren beharra dugu guztiok.

Mahastiaren jabeak, denei sari bera emanaz, lanaren saria baino gehiago, langileak bizitzeko behar zuena eman nahi izan zien. Berdintasunaren alde eman zien, nolabaiteko lan sari sozial gutxiengoa asmatuz. Dena ez da irabazia eta dirua, Jainkoaren asmoetan beharrezkoa denok izatea da garrantzitsua. Gure jokamoldea ez dator bat Jainkoaren asmoekin (*Is 55, 6-9*).

Zoragarria da Jainkoaren bere Erreinua eratzeko gizakion beharra eduki nahi izana. Denoi dei egiten digu; inoiz ez da berandu lanean hasteko. Belaunaldi berriei fedea eskualdatuz Erreinuaren hedapena eta Elizaren etorkizuna bermatzea dagokigu. Dei egiten jarraitzea, hazia botatzea dagokigu. Galdera egin behar diogu gure buruari, zergatik gaur dei horri erantzutea hain zaila gertatzen zaien belaunaldi berriei...

Pauloren testigantza ere bikaina da (*Flp 1, 20c-24. 27a*). Bere burua besteei eskaini die, fededunak, Ebanjelioari esker, hobeto bizi daitezten. Adinean aurrera egin duenean ere ez dio lanari ihes egiten, baizik eta besteen zerbitzura jarraitzen du. Gure adineko asko bezala: apaiz nahiz sekular, jubilazioko adina ondo pasata ere Elizaren zerbitzuan jarraitzen dute fin asko! Bere zerbitzua besteentzat beharrezkoa dela uste dutelako... Ebanjelioa bazter guztietara helaraziz. Eska diezaiogun Jaunari, jarrai dezala langileak deitzen bere uztarako; eta deitutakoei eman diezaiela bihotz zabala erantzuteko.

Caritasen, elkarrekin behar duen berezko sarea eta elkarren arteko lotura zaintzen laguntzen du, ez baikara zailtasunetik aterako elkarrekin osatzen ez badugu, hau da gizarte antolatua, elkarlotua, indartua eta denon ongizatea bilatzen duena osatzen ez badugu.

Elkarrekin, elkar zaintzea, konpromisoa, ardurakidetzeta eta onginahia: horra gizadiaren etorkizunerako oinarriak. Denon ongizatearen ezinbesteko osagai dira eta guztiok babesteko balio dute.

Eukaristia ospatzeak, Ogi santua partekatzeak, lagun diezagula fedea honetara bultatzen gaituela konturatzeko.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egin dezagun otoitz gizakien alde eta beraien beharren alde, denek izan dezaten gure maitasunaren laguntza:

- Aita Santuak, gotzainek eta apaizek, zerbitzu jarreraz eta apaltasunez zaindu dezaten beren ardurapeko artaldea. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herrietako gobernarien alde: guztien ona bila dezaten, ondasunak banatzen asma dezaten eta denontzat zuzentasuna, ongizatea, bakea eta askatasuna bidera ditzaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gosea edo bestelako beharrak dituztenen alde, gaixorik eta ezinduta bizi direnen alde, etxetik urrun edota bakardadean daudenen alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Hemen gaudenok, Espiritu Santuaz beterik eta fedean sendotuta on egiten saia gaitzen beti munduaren onerako. Eska diezaiogun Jaunari.

Aita zuzena, Jainko onginahiz betea, azkenekoei lehenengoei adina ematen diezu; entzun gure otoitzak eta lagundu Zure bideen bikaintasuna aitortuz Zure alorrean lan egitea ohore handizat izaten. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Diru-bilketa berezia

Ohartarazi, diru-bilketa [egiten den unean] Caritasen beharretarako izango dela.

DOMINGO 25° DEL TIEMPO ORDINARIO

Jornada de Caritas

Monición de entrada

¡Bienvenidos!

Nos hemos reunido como cada domingo a celebrar la Eucaristía. Cada uno viene con sus alegrías y esperanzas. Traemos con nosotros la vida y las dificultades de nuestra sociedad y nuestro entorno.

Hoy, justamente, Caritas nos hace esta llamada: “Buscando el bien común con paso firme”. Nuestra oración y colecta especial de hoy serán para ayudar a los más necesitados.

Sugerencias para la homilía

Nadie nos ha llamado para trabajar

El tiempo de pandemia que estamos viviendo, ha puesto en duda muchas condiciones de vida y muchas seguridades. El sentirnos limitados, el haber tenido limitado hasta el movimiento, ha sido una prueba de nuestra debilidad y vulnerabilidad.

En el silencio de nuestra casa, hemos podido darnos cuenta de la necesidad de la austeridad y de dar prioridad a lo más importante. En el cuidado de lo más básico nos hemos dado cuenta de que era importante no olvidar esto: todo necesitamos de todos.

El dueño de la viña, dando la misma paga a todos, el Señor parece hacer una opción a favor de la igualdad, parece que quiso asegurar una especie de salario mínimo que garantice a cada persona poder vivir con dignidad junto con toda su familia. Nuestra manera de actuar está muy lejos del estilo de Dios, de sus planes y caminos (*Is 55,6-9*).

Es una maravilla el que Dios haya querido tener necesidad de los hombres para poder realizar su misión de establecer el Reino. Llama a todos y nunca es tarde para incorporarse a esta tarea. Las generaciones actuales tenemos la responsabilidad de asegurar el futuro de la Iglesia, llamando a las generaciones más jóvenes. Tendremos que seguir preguntándonos por qué nuestras iglesias se van quedando vacías de jóvenes.

El ejemplo de Pablo es admirable (*Filip 1, 20c-24. 27a*). Ha dedicado toda su vida a los demás para que sus fieles puedan llevar una vida digna del evangelio de Cristo. En la vejez pudiera pensar en un retiro cómodo e incluso considerar la muerte como una liberación de los trabajos y sobre todo como el ansiado encuentro con Cristo. Pero ahí lo tenemos dispuesto a seguir dando el callo porque sigue siendo necesario a los demás. Es lo que veo también en tantos de nuestros sacerdotes y religiosos que han superado ampliamente la edad de jubilación y siguen ahí en la brecha, porque consideran que su servicio a los demás es necesario para que los fieles puedan llevar una vida digna del evangelio. Pidamos en esta Eucaristía que el Señor siga enviando obreros a su viña.

Caritas nos ayuda a recrear el tejido social comunitario y a generar cohesión, porque solo saldremos de esta situación si somos capaces de forjar comunidad, es decir, una sociedad reforzada, enlazada con base social y compuesta por redes del bien común.

Comunidad, cuidado, compromiso, corresponsabilidad, compasión... constituyen el futuro de nuestra humanidad. Son parte imprescindible del bien común que protegen a todas las personas con firmeza y sostenibilidad.

Que celebrar la Eucaristía y compartir el Pan Santo, nos ayude a ser conscientes de que la fe nos impulsa a esto.

Oración de los fieles

Oremos hermanos por toda la humanidad y por sus necesidades, que ayudemos a todos con amor:

- Que el Papa, los obispos y presbíteros cuiden del rebaño encomendado con actitud de servicio y humildad. Oremos.
- Por los gobernantes: para que busquen el bien común, acierten en el reparto de la riqueza y trabajen por la justicia, el bienestar, la paz y la libertad de todos. Oremos.
- Por quienes sufren hambre u otras necesidades, por quienes están enfermos o impedidos, por los que están lejos de casa o viven en soledad. Oremos.
- Por quienes estamos aquí reunidos, para que llenos del Espíritu Santo y fortalecidos en la fe trabajemos siempre por el bien del mundo. Oremos

Padre bueno, Dios compasivo que das a los últimos tanto como a los primeros; escucha nuestra oración y haz que reconociendo la bondad de tus enseñanzas tengamos como gran don trabajar en tu mies. Por Jesucristo nuestro Señor.

Colecta especial

Recordar que la colecta [cuando se haga] es para las necesidades de Caritas.